

1629/1991 Errege Dekretua, azaroaren 8koa, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Erregelamendua onetsi duena

(EAO, 1991. urteko azaroaren 16koa)

11. artikulua. *Oinordetza-tituluak*

Zerga honen ondorioetarako, oinordetza-tituluak dira, besteak beste, eta herentzia eta legatuaz gain, hurrengoak:

a) “Mortis causa” dohaintza.

b) Oinordetza-kontratuak edo -itunak.

c) Enpresek edo, oro har, erakundeek hildako kide edo langileen senideei zenbait diru-kopuru jasotzeko eskubidea aitortzekoak, diru-kopuru horien modalitatea edo izena edozein izanik ere, baldin eta beren-beregi ez bada xedatu diru-kopuru horiek zerga ordainduko dutela, 10. artikulua c) idaz-zatiaren ondorioz, edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ordainduko dutela.

d) Testamentugileek albazeei zenbait diru-kopuru jasotzeko eskubidea aitortzekoak, albazea horiek euren eginkizunak bete ditzaten, usadio eta ohituretan ezarritakoa gainditzen duten neurrian, edo, bestela, herentziaren balio egiaztatuaren 100eko 10a gainditzen duten neurrian.

38. artikulua. *Ezkontza-sozietatearen ondasun erkideak dohaintzan ematea.*

Bi ezkontideek ezkontza-sozietatearen ondasun edo eskubide erkideak dohaintzan ematen dituztenean, ulertuko da dohaintza bakarra dagoela.

55. artikulua. *Erreserbak*

1. Kode Zibilaren 811. artikulua arabera, herentzia erreserbapekoa denean, erreserbagileak gozamedun gisa ordainduko du zerga; baina, erreserba zein senideren mesederako ezarri eta senide horiek guztiak hil direlako, edo uko egin dutelako, erreserba azkentzen bada, erreserbagilearen betebeharra izango da jabetza soilari dagokion zerga ordaintzea, eta, kasu horretan, erregelamendu honen 47.3 eta 58. artikuluetan agindutakoa aplikatuko da.

2. Kode Zibilaren 968, 969, 979 eta 980. artikuluek aipatu erreserba arruntaren kasuan, zerga erreserbagileari likidatuko zaio, jabetza osoaren gainean; horri kalterik egin gabe, egiaztatzen bada, erreserbak zein ondasun ukitu eta ondasun horiek beroriek edo halakoen ordezkioak erreserba-hartzaileari eskualdatu zaizkiola, orduan erreserbagileak eskubidea izango du, ondasunon gaineko jabetza soilari dela-eta ordaindutako zerga itzultzeko.

3. Bi kasu horietan, erreserba-hartzaileak zerga ordainduko du, 47.3 artikuluan agindutakoa kontuan hartuta, eta ondasunak zein pertsonarengandik etorri eta pertsona horrekin duen senidetasun-gradua gogoan izanik, baina erreserbagilearekin duen senidetasun-gradua aintzakotzat hartu gabe, nahiz eta erreserbagile horrek hobetze-ahalmena erabili izan, Kode Zibilaren 972. artikuluan aitortuta dagoen moduan.

4. Edozein kasutan ere, aurreko zenbakietan xedatutakoa aplikatuko zaie Aragoiko Konpilazioaren 139. artikuluan araututako erreserbei, Kataluniako Konpilazioaren 274. artikuluan araututakoei, Nafarroako Konpilazioaren 269. Legean araututakoei, eta Bizkaiko Konpilazioaren 36 eta 38. artikuluetan araututakoei ere bai.